

**EUSKAL AUTONOMIA ACTA DE LA REUNIÓN DE LA MESA DE
ERKIDEGOKO ELKARRIZKETA DIÁLOGO SOCIAL DE LA COMUNIDAD
SOZIALERAKO MAHAIAK 2026KO AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO,
APIRILAREN 14AN EGINDAKO CELEBRADA EL DÍA 14 DE ABRIL DE
BILERAREN AKTA. 2026.**

2026ko apirilaren 14ko 13:00etan, jarraian zerrendatzen diren pertsonak bildu dira, bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuak egindako deialdiko gai-zerrendan jasotako gaiak jorratzeko:

Siendo las 13:00 horas del día 14 de abril de 2026, se reúnen las personas que a continuación se señalan, al objeto de tratar los asuntos contenidos en el orden del día de la convocatoria realizada por el vicelehendakari segundo y consejero de Economía, Trabajo y Empleo:

EUSKO JAURLARITZA ORDEZKATUZ, jarraian aipatzen diren sailburuak Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren parte dira, zeinak eskumenak baitituzte zerrendatzen diren jardun-arloetan:

EN REPRESENTACIÓN DEL GOBIERNO VASCO, forman parte de la Mesa de Diálogo social las personas titulares de los siguientes departamentos con competencias en las áreas de actuación que se relacionan a continuación:

“Eusko Jaurlaritzak mahaian izango dituen ordezkariak gai hauetan eskumena daukaten sailerako titullarrak izango dira:

lana eta lan-harremanak, enplegua, industria, ekonomia-garapena eta hezkuntza.

Halaber, noizean behin, Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuetako titularrek ere parte hartu ahal izango dute, Mahaian jorratzen diren gaiak haien eskumen espezifikokoak direnean”. /

“En representación del Gobierno Vasco, forman parte de la Mesa las personas titulares de los departamentos con competencias en las siguientes materias:

trabajo y relaciones laborales, empleo, industria, desarrollo económico y educación.

Así mismo, y con carácter puntual, podrán incorporarse a la Mesa las personas titulares de otros departamentos del Gobierno cuando los temas a tratar en ella guarden relación con su ámbito específico de competencias.”



Lana, enplegua eta lan-harremanak:

Mikel Torres Lorenzo, bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburua, mahaiko presidentea izango dena.

Trabajo, empleo y relaciones laborales:

D. Mikel Torres Lorenzo, vicelehendakari segundo y consejero de Economía, Trabajo y Empleo, que actúa en calidad de presidente de la Mesa.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena:

MIKEL JAUREGI LETEMENDIA, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua.

Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente:

D. MIKEL JAUREGI LETEMENDIA, Consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad.

Hezkuntza:

MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO, Hezkuntzako sailburua.

Educación:

MARIA BEGOÑA PEDROSA LOBATO, consejera de Educación

Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa:

NEREA MELGOSA VEGA, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua.

Bienestar, Juventud y Reto Demográfico:

NEREA MELGOSA VEGA, Consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico.

Emakunde:

Miren Elgarresta Larrabide. Zuzendaria.

Emakunde:

Miren Elgarresta Larrabide. Directora.

Sailburuekin batera, sailburuordeak eta aipatu gaietako zuzendariak ere bertaratu dira:

Junto con las consejeras y consejeros, asisten los viceconsejeros, las viceconsejeras y las directoras de las materias referidas:

- ✓ *Elena Pérez Barredo, Laneko eta Gizarte Segurantzako sailburuordea.*
- ✓ *Alfonso Gurpegui Ruiz, Enplegu eta Inklusioko sailburuordea.*
- ✓ *Iñaki Ruiz Manzano, Ekonomiako sailburuordea.*
- ✓ *Jon Labaka Intxausti, Lanbide Heziketako sailburuordea.*
- ✓ *Xabier Legarreta Gabilondo, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuordea.*

- ✓ *D. Elena Pérez Barredo, Viceconsejera de Trabajo y Seguridad Social.*
- ✓ *D. Alfonso Gurpegui Ruiz, Viceconsejero de Empleo e Inclusión.*
- ✓ *D. Iñaki Ruiz Manzano, Viceconsejero de Economía.*
- ✓ *D. Jon Labaka Intxausti, viceconsejero de Formación Profesional*
- ✓ *D. Xabier Legarreta Gabilondo, Viceconsejero de Juventud y Reto Demográfico*

- ✓ Miren Elgarresta Larrabide, Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria.

- ✓ Dña. Miren Elgarresta Larrabide, directora de Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer.

Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak handiena duten **ANTOLAKUNDE SINDIKALAK ORDEZKATUZ**, zeinak mahaiarekin bat egitea eta bertan aktiboki parte hartzea onartu baitute:

Euskadiko CCOO ordezkatzuz, Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren parte da haren **idazkari nagusi Santiago Martínez**, zeina hauekin batera bertaratu baita:

- ✓ Oscar Arenas Velasco, Babes Soziala, Instituzionala eta Nazioartekoa emateko arloko idazkaria.
- ✓ Estibaliz Montero, Emakumeen eta Enpleguaren arloko idazkaria.

UGT Euskadi ordezkatzuz, mahaiaren parte da **José Manuel López "Tximi"**, UGT Euskadiko batzorde kudeatzaileko burua, zeina honako hauekin batera bertaratu baita:

- ✓ Xuria Arza Vélez, Berdintasun, Gizarte Politika eta Aniztasunaren arloko idazkaria.
- ✓ Daniel González Taboada, Politika Sindikal eta Instituzionalaren arloko idazkaria.

EN REPRESENTACIÓN DE LAS ORGANIZACIONES SINDICALES más representativas en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco que han aceptado integrarse y participar de forma activa en la Mesa:

En representación de **CCOO de Euskadi**, forma parte de la Mesa de Diálogo Social su **secretario general, D. Santiago Martínez**, que comparece acompañado de las siguientes personas:

- ✓ Oscar Arenas Velasco, secretario de Protección Social, Institucional e Internacional.
- ✓ Estibaliz Montero, secretaria de las Mujeres y empleo.

En representación de **UGT Euskadi**, forma parte de la Mesa **José Manuel López "Tximi"**, presidente de la Comisión gestora de UGT Euskadi, que comparece acompañado de las siguientes personas:

- ✓ Xuria Arza Vélez, secretaria de Igualdad, Políticas Sociales y Diversidad.
- ✓ D. Daniel González Taboada, secretario de Política Sindical e Institucional.

Euskal Autonomia Erkidegoan **ORDEZKARITZA HANDIENA DUTEN ENPRESA-ANTOLAKUNDEAK ORDEZKATUZ**:

EN REPRESENTACIÓN DE LAS ORGANIZACIONES EMPRESARIALES MÁS REPRESENTATIVAS en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco,

*Mahaiko kide da **Confebaskeko buru Tamara Yagüe**, zeina honako hauekin batera bertaratu baita:*

- ✓ *Eduardo Aréchaga: zuzendari nagusia.*
- ✓ *Virginia Múgica: Justiziaren eta Lan Harremanen Saileko zuzendaria.*
- ✓ *José Miguel Ayerza: ADEGIko zuzendari nagusia.*
- ✓ *Francisco Javier Azpiazu: CEBEkeko idazkari nagusia.*
- ✓ *Juan Ugarte: SEA Arabako Enpresak-eko zuzendari nagusia.*

*forma parte de la Mesa, la **presidenta de Confebask Dña. Tamara Yagüe**, que comparece acompañada de las siguientes personas:*

- ✓ *Eduardo Aréchaga: director general.*
- ✓ *Virginia Múgica: directora Departamento Jurídico y Relaciones Laborales .*
- ✓ *José Miguel Ayerza: director general ADEGI.*
- ✓ *Francisco Javier Azpiazu: secretario general CEBEK.*
- ✓ *Juan Ugarte: director general SEA Empresas Alavesas.*

IDAZKARIA: Iñaki Calonge Crespo, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko aholkulari juridikoa.

SECRETARIO: D. Iñaki Calonge Crespo, asesor jurídico del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo.

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuak hartu du hitza, Elkarrizketa Sozialerako Mahaiko presidentea den aldetik, eta ongi etorria eta eskerrak eman dizkie bertaratu direnei. Halaber, eskertu du mahaia osatzen duten pertsonak egiten duten ahalegina, partaidetza eta konpromisoa akordioak lortzeko. Adierazi du ezen, nahiz eta batzuetan akordiorik ez lortu, elkarrizketan aritzeak berak balioa duela eta lagundu egiten duela adostutako politika publikoak hobeto ezartzen eta gehiago iraunarazten.

Toma la palabra el **vicelehendakari segundo y consejero de Economía, Trabajo y Empleo**, en su calidad de presidente de la Mesa de Diálogo Social, da la bienvenida a las personas asistentes y agradece su presencia, así como el esfuerzo, la participación y el compromiso de quienes integran la Mesa para alcanzar acuerdos. Señala que, aun cuando en ocasiones no se culminen, el propio ejercicio del diálogo posee un valor en sí mismo y contribuye a una mejor implementación y mayor perdurabilidad de las políticas públicas acordadas.

Era berean, nabarmendu du zein lan handia egin den azken hilabeteetan lantalde desberdinetan, horrek erakusten baitu mahaian ordezkatzutako sailen eta agente sozialen konpromisoa. Testuinguru horretan, elkarrizketa aldarrikatu du herriko, bizikidetzako eta lan-harremanetako eredu gisa —tresna bereziki baliotsua asaldatua eta

Asimismo, pone de relieve el intenso trabajo desarrollado en los últimos meses en el seno de los distintos grupos de trabajo, reflejo del compromiso de los departamentos representados en la Mesa y de los agentes sociales. En este contexto, reivindica el diálogo como modelo de país, de convivencia y de relaciones laborales, particularmente valioso en

ziurgabea den eszenatoki batean—. Gainera, Euskadiko Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren hiru helburu handiak gogorarazi ditu: enpleguaren kalitatea hobetzea, hiru alderdien arteko akordioa sustatzea politika publikoak itundu eta legitimatzeko formula gisa, eta lan-harremanak antolatzea.

Jarraian, gai-zerrendan jasotako puntuen berri eman du. Haien artean nabarmendu du etorkizuneko Partaidetza Institutuzionalaren Euskal Legearen oinarriei buruzko akordioa, zeinak aitortzen baitu elkarrizketa sozialak duen balioa, hala euskal eredu demokratikoaren zutabe gisa, nola politika eta ekintza publikoko partaidetza indartzeko bide gisa, eta aitortu du, era berean, partaidetzak eta elkarrizketa sozialak duten balioa gobernantza-arkitektura partaideago gisa, akordio zabalak eraiki eta ekintza publikoari legitimitatea emateko.

Halaber, langileen prestakuntza integralaren berezko eredua ere aipatu du. Eredu hori gobernantza kolaboratiboko logikan oinarritzen da, diseinatzen denetik hedatzen denera arte, eta helburu du hiru trantsizioen esparruan enplegagarritasuna hobetzea, betiere kolektibo zaurgarrienak ahaztu gabe. Dagoeneko definitu da zein tresna diren beharrezkoak aurrera egin dadin hura ezartzeko eta gaitasun profesionalak egiaztatzeko bidean, ibilbide pertsonalizatuen bidez.

Era berean, lan-merkatuko migrazioei buruzko taldea aipatu du. Azpimarratu duenez, zalantzan jarri ezin den errealitate bat da, eta lotuta dago erroka demografikoekin, belaunaldi-erreleboarekin eta enplegu-eskari berrieekin. Horrek, era

un escenario convulso e incierto, y recuerda los tres grandes objetivos de la Mesa de Diálogo Social de Euskadi: mejorar la calidad del empleo, impulsar el acuerdo tripartito como fórmula de concertación y legitimación de las políticas públicas, y ordenar las relaciones laborales.

A continuación, da cuenta de los distintos puntos incluidos en el orden del día y destaca, entre ellos, el acuerdo sobre las bases de la futura Ley Vasca de Participación Institucional, que reconoce el valor del diálogo social como pilar del modelo democrático vasco y como cauce para reforzar la participación en las políticas y en la acción pública, así como el valor de la participación y del diálogo social como una arquitectura de gobernanza más participativa, útil para construir acuerdos amplios y dotar de legitimidad a la acción pública.

Se refiere igualmente al modelo propio de formación integral de las personas trabajadoras, asentado en una lógica de gobernanza colaborativa desde la fase de diseño hasta su despliegue, orientado a mejorar la empleabilidad en el marco de las tres transiciones y sin olvidar a los colectivos más vulnerables, habiéndose definido ya los instrumentos necesarios para avanzar en su implementación y en la acreditación de competencias profesionales mediante itinerarios personalizados.

Asimismo, menciona el grupo de trabajo sobre migraciones en el mercado de trabajo, subrayando que se trata de una realidad incuestionable vinculada a los retos demográficos, al relevo generacional y a las nuevas demandas del empleo, lo que abre

berean, lankidetzarako eta aukerarako espazio bat zabaltzen du.

también un espacio de colaboración y de oportunidad.

Era berean, Ekialde Ertaineko gerrarekin lotutako neurriei buruzko akordioa aipatu du. Dioenez, indarkeria baztertzeko duen posizio partekatua batetik, zuzenketa-neurriak planteatu dira pertsonak eta enpresak babesteko, eta, besteak beste, birkolokazioa, birkualifikazioa eta kontratazioaren sustapena bultzatu dira.

Del mismo modo, alude al acuerdo sobre medidas en relación con la guerra en Oriente Medio, señalando que, a partir de una posición compartida de rechazo a la violencia, se han planteado medidas concretas orientadas a la protección de las personas y de las empresas, favoreciendo, entre otras cuestiones, la recolocación, la recualificación y el fomento de la contratación.

Amaitzeko, adierazi du aurrerapen horiek guztiak mahaietan eta lantaldeetan egindako lanaren emaitza direla, eta, beraz, kideei eskerrak eman dizkie. Halaber, elkarrizketa aldarrikatu du jarduketara instituzionala eta akordio berriak gidatzen jarraitu behar duen nortasun-adierazle gisa, bereziki sarritan elkar ulertzearen gainetik zarata gailentzen den une batean.

Concluye señalando que todos estos avances son fruto del trabajo desarrollado en las mesas y grupos de trabajo, a cuyos integrantes traslada su agradecimiento, y reivindica el diálogo como una seña de identidad que debe seguir guiando la actuación institucional y la consecución de nuevos acuerdos, especialmente en un momento en el que con frecuencia se impone más el ruido que el entendimiento.

Egindako deialdiaren arabera, lehendakariordeak Elkarrizketa Sozialerako Mahaia (aurrerantzean, ESM) bilera honen gai-zerrendako puntuak gogorarazi ditu:

En atención a la convocatoria realizada, el vicelehendakari recuerda los puntos del Orden del día de esta sesión de la Mesa de Diálogo Social (en adelante, MDS):

1 Aurreko bileraren (2023ko apirilaren 19a) akta onartzea.

1 Aprobación del Acta de la reunión anterior de fecha 19 de abril de 2023.

2 Akordioa, partaidetza instituzionalari buruzko etorkizuneko euskal legearen oinarriei buruzkoa.

2 Acuerdo sobre las bases de la futura ley vasca de Participación Institucional.

3 Akordioa, langileentzako prestakuntza-eredu propioa garatzeari buruzkoa.

3 Acuerdo sobre el desarrollo del modelo propio de formación para personas trabajadoras.



4 Akordioa, EAEko lan-merkatuko migrazioei buruzko lantalde bat eratzeke, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarrizketa Sozialerako Mahairen esparruan.

5 Akordioa, Ekialde Ertaineko gerrarekin lotutako neurriei buruzkoa.

6 Galde-eskeak.

4 Acuerdo para la formación de un grupo de trabajo sobre migraciones en el mercado de trabajo vasco, en el marco de la Mesa de Diálogo Social de Euskadi.

5 Acuerdo sobre medidas en relación con la guerra en Oriente Medio.

6 Ruegos y preguntas.

GAI-ZERRENDAKO LEHENENGO PUNTUA:

2023ko apirilaren 19ko bileraren akta irakurtzea eta onartzea.

Lehendakariordeak 2023ko apirilaren 19ko bileraren akta aurkeztu du, eta onartu egin da.

PUNTO PRIMERO DEL ORDEN DEL DÍA: *Lectura y aprobación del acta de la reunión de fecha 19 de abril de 2023.*

El Vicelehendakari presenta el Acta correspondiente a la reunión celebrada el día 19 de abril de 2023, que resulta aprobada.

GAI-ZERRENDAKO BIGARREN PUNTUA:

Akordioa, partaidetza instituzionalari buruzko etorkizuneko euskal legearen oinarriei buruzkoa.

Lehendakariordeak nabarmendu duenez, akordio hori elkarrizketa sozialaren esparruan garatutako baterako lanaren emaitza da, hau da, euskal gizartean ituna ulertzeko moduaren adierazgarri. Azpimarratu du oinarriak agente sozialen artean egin direla eta akordio horrek aukera emango duela dagozkion izapideak hasteko. Jarraian, Laneko eta Gizarte Segurantzako sailburuordeari eman dio hitza, bere ekarpena ezinbestekoa iruditzen baitzaio lortutako akordio desberdinetan.

Elena Pérez Barredok azaldu du akordioa bera eta onartutako oinarriak garrantzitsuak direla ondoren Jaurlaritzak lege-proiektua izapidetu dezan. Adierazi duenez, akordio hau hartzeak berebiziko garrantzia dauka, elkarrizketa ez baita beti erraza.

PUNTO SEGUNDO DEL ORDEN DEL DÍA: *Acuerdo sobre las bases de la futura ley vasca de Participación Institucional.*

El Vicelehendakari destaca que el acuerdo es fruto del trabajo conjunto desarrollado en el marco del diálogo social, expresión de un modo de entender la concertación en una sociedad como la vasca. Subraya que las bases han sido elaboradas de manera compartida entre los agentes sociales y que este acuerdo permitirá iniciar la tramitación correspondiente. A continuación, cede la palabra a la Viceconsejera de Trabajo y Seguridad Social, cuya aportación considera fundamental en la consecución de los distintos acuerdos alcanzados.

Interviene seguidamente Elena Pérez Barredo, quien expone la relevancia del acuerdo y de las bases aprobadas como paso previo a la posterior tramitación por el Gobierno del correspondiente proyecto de ley. Señala que la adopción de este acuerdo reviste especial

Antolakunde sindikalek eta enpresa-antolakundeek egindako ekarpena nabarmendu du.

importancia, precisamente porque el diálogo no siempre resulta sencillo, y pone en valor la contribución tanto de las organizaciones sindicales como de las organizaciones empresariales.

Ondoren, Begoña Pedrosa sailburuak hartu du hitza. Prestakuntza-ereduari buruzko akordioa aipatu du, eta egindako lana nabarmendu, sistemak orain antolaketa eta plangintza handiagoak dituela azpimarratuz. Adierazi duenez, lantaldeak aurrera egiten jarraitu behar du prestakuntza- eta enplegu-mapan, eta azpimarratu du garrantzitsua dela lanbide-heziketatik garatzen den monitorizazioa beharrian zehatzak asetzerara orientatu dadila, bereziki aldaketa demografiko, sozial eta digitalekin lotutako profil profesional berrien ondoriozkoak, hartara inguruaren eskariei ematen zaien erantzuna errazteko. Jarraian, Alfonso Gurpeguik esku hartu du. Nabarmendu du enplegu-politiketan prestakuntza txertatu izana, eta, halaber, azpimarratu du baterako lanak, plangintzak, eta herritarrentzako azalpen argiagoak duten balioa. Espresuki aitortu du Lanbide Heziketako Sailburuordetzak eta Lanbidek egindako lana, eta azpimarratu du eredia lagungarria dela hala enpresetara hurbiltzeko, lan-merkatuaren eta ekoizpen-sarearen beharriari erantzuten dielako, nola pertsonengana hurbiltzeko, enplegua eskuratzeko dituzten aukerak handitzen dituelako. Azkenik, Jon Labakak ereduaren balorazio positiboa egin du, eta adierazi du ezen, hurrengo hil eta urteetan, hura garatzen jarraituko beharko dela, lanbide-heziketa gizartearen zerbitzura jar dadin. Gainera, azaldu du dagoeneko lantzen ari dela akordio hori gauzatu ahal izateko ibilbide-orri bat.

Toma la palabra la consejera Begoña Pedrosa, quien se refiere al acuerdo sobre el modelo de formación y pone en valor el trabajo realizado, destacando que el sistema presenta ahora una mayor ordenación y planificación. Señala que el equipo de trabajo debe continuar avanzando en el mapa de formación y empleo, y subraya la importancia de que la labor de monitorización desarrollada desde la Formación Profesional se oriente a responder a necesidades concretas, especialmente las derivadas de los nuevos perfiles profesionales asociados a los cambios demográficos, sociales y digitales, con el fin de agilizar la respuesta a las demandas del entorno. Interviene a continuación Alfonso Gurpegui, quien destaca la integración de la formación en las políticas de empleo y resalta asimismo el valor del trabajo conjunto, de la planificación y de una mayor clarificación para la ciudadanía. Reconoce expresamente la labor de la Viceconsejería de Formación Profesional y de Lanbide, subrayando que el modelo contribuye a acercarse tanto a las empresas, dando respuesta a las necesidades del mercado laboral y del tejido productivo, como a las personas, ampliando sus posibilidades de acceso al empleo. Finalmente, Jon Labaka manifiesta una valoración positiva del modelo y señala que, en los próximos meses y años, deberá seguir desarrollándose para poner la Formación Profesional al servicio de la sociedad, indicando además que ya se está trabajando en una hoja de ruta orientada a materializar el acuerdo.

Migrazioei buruzko lantalde bat eratu dela eta, Nerea Melgosak eskerrak eman ditu lortutako akordioengatik. Hala ere, adierazi du faltan duela Legarreta sailburuordeak talde horretan parte hartzea, eta, beraz, taldean sar dadin eskatu du.

En relación con la constitución de un grupo de trabajo sobre migraciones, Nerea Melgosa agradece los acuerdos alcanzados, si bien señala que echa en falta la participación del viceconsejero Legarreta en dicho grupo y solicita su incorporación. A continuación,

Jarraian, Alfonso Gurpeguik akordio hori kokatu du prestakuntza bidezko errotze-prozesuen inguruan garatzen ari den lanean. Nabarmendu du EAEk enplegura sartzeko bide bat duela administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonentzat, eta uste du erregularizazio-prozesuek, eremu horretan, abantaila lehiakor bat eragin dezaketela. Gaineratu duenez, lanean ari dira migrazio seguruko kanalak sustatzen, prestakuntza-aukera berriak sortu ahal izateko.

Irango gerrarekin lotutako enplegurako laguntzei buruzko akordioari dagokionez, Laneko eta Gizarte Segurantzako sailburuordeak hartu du hitza. Adierazi duenez, beste kasu batzuetan antzeko krisi-egoeratan hartutako neurriak dira.

Ondoren, Tamara Yagüe esku hartu du, Confebasken ordezkari gisa. Mahai honetan egindako lan bateratua nabarmendu du, eta pozik agertu da aldeak gai izan direlako akordioak lortzeko, eta, hala, indartu egin delako Elkarrizketa Sozialerako Mahaiak duen eginkizuna itunak lortzeko foro esanguratsu gisa. Bereziki azpimarratu du partaidetza instituzionalari buruzko akordioa eta haren oinarrian den adostasun-grina, bai eta beste eremu batzuetan hartutako akordioen garrantzia ere, mahai honetan aurretik lortutako akordioekin bat (esaterako, ABEEei edo langabeen kontratazioari buruzkoekin). Halaber, mintzagai izan du gerrari lotutako babes-neurriei buruzko akordioa, eta adierazi du ezen, nahiz eta aurretik erabili izan diren tresnak izan, foro honetan onartzeak garrantzia berezia duela. Migrazioei buruzko akordioarekin lotuta, azpimarratu du beharrezkoa dela agente guztien artean lankidetzan aritzea, migrazio-kanal seguru eta erregularrak antolatzeke, aukera emango dutenak egun enpresetan dagoen langileria-beharrari erantzuteke. Prestakuntza-eredu propioa dela eta,

Alfonso Gurpegui enmarca este acuerdo en el trabajo que viene desarrollándose en torno a los procesos de arraigo por formación. Destaca que Euskadi dispone de una vía de acceso previo al empleo para personas en situación administrativa irregular y considera que los procesos de regularización pueden suponer, en este ámbito, una ventaja competitiva. Añade, asimismo, que se está trabajando en canales de migración segura que pueden generar nuevas oportunidades de formación.

En relación con el acuerdo sobre ayudas al empleo vinculado a la guerra en Irán, toma la palabra la Viceconsejera de Trabajo y Seguridad Social, quien señala que se trata de medidas que ya se han adoptado en otras ocasiones ante situaciones de crisis semejantes.

Interviene, en representación de Confebask, Tamara Yagüe, quien pone en valor el trabajo común desarrollado en el seno de esta Mesa y expresa su satisfacción por la capacidad de las partes para alcanzar acuerdos, consolidando así el papel de la Mesa de Diálogo Social como foro relevante de concertación. Destaca, en particular, el acuerdo sobre participación institucional y el espíritu de consenso que lo sustenta, así como la relevancia de los acuerdos adoptados en otros ámbitos, en línea con precedentes alcanzados en esta Mesa, como los relativos a los ERTE o a la contratación de personas desempleadas. Se refiere asimismo al acuerdo sobre medidas de apoyo vinculadas a la guerra, señalando que, aunque se trata de instrumentos ya utilizados en ocasiones anteriores, su aprobación en este foro reviste especial importancia. En relación con el acuerdo sobre migraciones, subraya la necesidad de colaborar entre todos los agentes para articular canales de migración seguros y regulares que permitan dar respuesta a la actual necesidad de personal de las empresas. Respecto del modelo propio de formación, destaca el trabajo coordinado entre empleo y formación para atender tanto las necesidades de cualificación

nabarmendu du enpleguaren eta prestakuntzaren artean egin den lan koordinatua, arreta emateko hala pertsonen kualifikazio iraunkorreko beharizanei, nola enpresen eraldaketa-eskariei; horren barruan sartzen dira oraindik aski estali ez diren prestakuntza-profilei lotutakoak. Azkenik, adierazi du orain aurrera egin behar dela, erabakimenez, neurri zehatzekin eta ebaluazio-eredu egoki batekin. Bileraren eta egindako lan-plan zabalaren balorazio positiboa egin du, eta eskatu du berriro aktibatu dadila gaixotasun arruntaren ziozko aldi baterako ezintasunari buruzko lantaldea.

CCOOn ordezkaritzan, Santik esku hartu du. Azpimarratu du garrantzitsua dela hiru urteren ostean lortu den akordioa. Bere ustez, akordio horrek aukera ematen du, ez soilik Elkarrizketa Sozialerako Mahaia berriz aktibatzeke, baizik eta baita ere hura eduki zehatzekin eta akordiorako borondate zintzoarekin egiteko, polarizazioa egon dagoen eta desadostasunak geroz eta handiagoak diren testuinguru batean. Horrek, hain zuzen, oraindik eta baliotsuagoa egiten du itun-espazio hau. Horrekin lotuta, partaidetza instituzionalaren etorkizuneko euskal legearen oinarriak nabarmendu ditu, bai eta horrek zabaltzen duen aukera ere antolakundeek elkarrizketa sozialean duten eginkizunari buruz eztabaidatzeko, ondoren legebiltzarrean izapidetzen denean. Era berean, migrazioei buruzko lantaldearen esangura nabarmendu du, eta gogora ekarri ditu Eustaten datuak. Izan ere, datuon arabera, 2045ean biztanleriaren % 20 izan litezke atzerriarrak. Azpimarratu du beharrezkoa dela eztabaida hori lan-eskubideen babesari lotzea. Prestakuntzari buruzko akordioarekin lotuta, adierazi du ezen, egungo testuinguruan, zeinean lan-ibilbideak geroz eta aldakorragoak diren, beharrezkoa dela era honetako neurriak hartzea eta prestakuntzarako eskubidea bermatzea, bai eta tasa-legea aldatzeko esparruan doakotasuna zaintzea ere. Azkenik,

permanente de las personas como las demandas de transformación de las empresas, incluidas aquellas vinculadas a perfiles formativos aún insuficientemente cubiertos. Señala, finalmente, que corresponde ahora avanzar con decisión, con medidas concretas y con un adecuado modelo de evaluación, realiza una valoración positiva de la sesión y del amplio plan de trabajo existente, y solicita que se reactive el grupo de trabajo sobre incapacidad temporal derivada de enfermedad común.

Interviene, en representación de CCOO, Santi, quien subraya la importancia del acuerdo alcanzado tras tres años y considera que su adopción permite no solo reactivar la Mesa de Diálogo Social, sino hacerlo con contenidos concretos y con voluntad sincera de acuerdo, en un contexto marcado por la polarización y por discrepancias crecientes que hacen aún más valioso este espacio de concertación. Destaca, en este sentido, las bases de la futura Ley Vasca de Participación Institucional y la oportunidad que abre para debatir, también en su posterior tramitación parlamentaria, sobre el papel de las organizaciones en el diálogo social. Asimismo, pone de relieve la relevancia del grupo de trabajo sobre migraciones, recordando los datos de Eustat que apuntan a que la población extranjera podría alcanzar el 20% en 2045, y subraya la necesidad de vincular este debate a la protección de los derechos laborales. En relación con el acuerdo sobre formación, señala que el contexto actual, caracterizado por trayectorias laborales cada vez más cambiantes, obliga a adoptar este tipo de medidas y a garantizar el derecho a la formación, así como a preservar su gratuidad en el marco de la modificación de la ley de tasas. Finalmente, valora también la importancia de reactivar el escudo industrial y sociolaboral.

garrantzitsua iruditzen zaio industriako, gizarteko eta laneko ezkutua berriz aktibatzea.

Gaineratu duenez, maila instituzionalean, lehendakariak bileran egon beharko zukeen, horrek, bere ustez, indartuko egingo zukeelako unearen balioa. Halaber, Elena Pérez Barredori aitortpen positiboa egin dio bai bere inplikazioagatik bai akordioa posible egiteko erabakimenez laguntzeagatik.

UGT ordezkatzuz, Txemik esku hartu du. Azaldu duenez, Elkarrizketa Sozialerako Mahaiak balio berezia dauka, tresna egokia baita akordioa sustatzeko. Azpimarratu du ezin dela onartu hura ez-aktibo edo edukirik gabe edukitzea luzaroan. Horregatik, uste du zuzen jokatu dela pertsonen errealitateko esanguratsua eta erabilgarria den edukiz beteko akordioak sustatzean. Partaidetza instituzionalaren oinarriei buruzko akordioari dagokionez, nabarmendu du agente sozialek egindako lana eta izandako gaitasuna adostasunak erdiesteko. Prestakuntzari buruzko akordioa dela eta, adierazi du akordio horrek aukera ematen duela, azkenean, gai zehatzak jorratzeko eta aurrera egiteko, tresna azkarragoen bidez, tresna horiek gai baitira ondorio arin eta benetakoak sortzeko, aplikatzeko epeak laburtuz. Migrazioei buruzko akordioa dela eta, baieztatu du bistako beharizan bati erantzun diola eta aproposa dela irtenbide partekatutak antolatzeak ahalegina egitea. Halaber, garrantzitsua iruditzen zaio industriako, gizarteko eta laneko ezkutua, eta nabarmendu du aurrekontu zehatz bat duten neurriak txertatzen dituela.

Aldi baterako ezintasunari buruzko lantaldea berriz aktibatzeke proposamenari lotuta, gaineratu du UGTk ez duela eragozpenik bere jatorrien eta kausen analisia jorratzeko, baina faltan duela oraindik ere EAEn ez onartu izana prebentzioko ordezkariaren figura.

Añade, en el plano institucional, que el Lehendakari debería haber estado presente en la sesión, al considerar que con ello se habría reforzado el valor del momento, y expresa asimismo un reconocimiento positivo a Elena Pérez Barredo por su implicación y por haber contribuido decisivamente a hacer posible el acuerdo.

Interviene, en representación de UGT, Txemi, quien pone en valor la Mesa de Diálogo Social como herramienta idónea para fomentar el acuerdo y subraya que no resulta asumible mantenerla inactiva o carente de contenidos durante periodos prolongados. Considera, por ello, que se ha actuado correctamente al impulsar acuerdos con contenido relevante y útil para la realidad de las personas. En relación con el acuerdo sobre las bases de participación institucional, destaca el papel de los agentes sociales y su capacidad para alcanzar consensos. Respecto del acuerdo sobre formación, señala que permite por fin abordar cuestiones concretas y avanzar con herramientas más ágiles, capaces de producir efectos rápidos y reales, acortando plazos en su aplicación. En cuanto al acuerdo sobre migraciones, afirma que responde a una necesidad evidente y que resulta acertado tratar de articular soluciones compartidas. Valora igualmente la importancia del escudo industrial y sociolaboral, destacando que incorpora medidas dotadas de presupuesto concreto.

Añade que, en relación con la propuesta de reactivar el grupo de trabajo sobre incapacidad temporal, UGT no tiene inconveniente en abordar el análisis de sus orígenes y causas, si bien echa en falta que no se haya aprobado todavía en Euskadi la figura del delegado o delegada de prevención.

GAI-ZERRENDAKO HIRUGARREN PUNTUA:

Akordioa, langileentzako prestakuntza-eredu propioa garatzeari buruzkoa.

PUNTO TERCERO DEL ORDEN DEL DÍA:

Acuerdo sobre el desarrollo del modelo propio de formación para personas trabajadoras.

Puntu honetan, lehendakariordeak nabarmendu du Jaurilaritzak zein lan egin duen Hezkuntza Sailaren eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren artean nahiz Lanbiderekin. Horrekin lotuta, azpimarratu ditu eredu hobeto antolatzeko asmoz egin diren aurrerapenak, gehiago ziurtatu eta egiaztatu daitekeen prestakuntza bat lortzeko. Adierazi duenez, lanerako prestakuntza hobetzen jarraitu nahi da, lanbide-heziketako ikastetxe publiko eta itunduen laguntzarekin, eta sistema osoa jarri konpetentziak egiaztatze beharizan berrien zerbitzura. Esparru horretan, lanbide-heziketak duen eginkizun gidaria azpimarratu du.

En este punto, el Vicelehendakari destaca el trabajo desarrollado en el seno del Gobierno entre los Departamentos de Educación y de Economía, Trabajo y Empleo, así como con Lanbide, subrayando los avances producidos hacia una mejor ordenación del modelo, orientada a una formación más certificable y acreditable. Señala que se trata de seguir mejorando la formación para el trabajo, con el apoyo de los centros públicos y concertados de Formación Profesional, y de poner todo el sistema al servicio de las nuevas necesidades de acreditación de competencias. En este marco, resalta el papel tractor de la Formación Profesional.

Jarraian, Alfonso Gurpeguik esku hartu du. Eskerrak eman ditu egindako lanagatik, eta prestakuntza jarri du enplegu- eta hezkuntza-politiken erdigunean. Adierazi du akordio horrek aukera ematen duela sakontzeko eta aurrera egiteko 2022an dagoeneko hasi zen lerroan; hala, sistema herritarrentzat argiago uzten du, eta aukerak zabaltzen ditu bai antolakundeentzat bai lan-merkatuari, ekoizpen-sareari eta langileei begira.

Interviene seguidamente Alfonso Gurpegui, quien agradece el trabajo realizado y pone la formación en el centro de las políticas de empleo y de educación. Señala que este acuerdo permite profundizar y avanzar en la línea ya iniciada en 2022, reforzando la clarificación del sistema para la ciudadanía y abriendo nuevas oportunidades tanto para las organizaciones como para el mercado laboral, el tejido productivo y las personas trabajadoras.

Halaber, Lanbide Heziketako sailburuordeak hartu du hitza, eta adierazi du eredu positiboki baloratzen duela eta garatzen jarraitu behar dela, gizartearen zerbitzura jar daitezen dauden gaitasun guztiak, aprobetxatu beharreko balio gisa. Gaineratu du dagoeneko egiten dela lan akordio hori gauzatzeko, ibilbide-orri baten

Toma también la palabra el Viceconsejero de Formación Profesional, quien manifiesta una valoración positiva del modelo y señala que debe seguir desarrollándose para poner al servicio de la sociedad todas las capacidades existentes, como un valor que conviene aprovechar. Añade que ya se trabaja con la expectativa de materializar el acuerdo

bidez, eta konpromisoa dagoela hura sustatzeko eta aurrera eramateko.

mediante una hoja de ruta, existiendo el compromiso de impulsarlo y llevarlo adelante.

GAI-ZERRENDAKO LAUGARREN PUNTUA:

Akordioa, EAEko lan-merkatuko migrazioei buruzko lantalde bat eratzeke, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarrizketa Sozialerako Mahairen esparruan.

PUNTO CUARTO DEL ORDEN DEL DÍA:

Acuerdo para la formación de un grupo de trabajo sobre migraciones en el mercado de trabajo vasco, en el marco de la Mesa de Diálogo Social de Euskadi.

Lehendakariordeak eskerrak eman ditu lortutako akordioengatik, eta, puntu horrekin lotuta, adierazi du Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroak faltan duela Elkarrizketa Sozialerako Mahaian sartzea. Halaber, Legarreta sailburuordea eremu horretan sartzea komenigarria dela planteatu du.

Era berean, adierazi da komenigarria dela mahaiko taldeetan lanbide-heziketarekin eta enplegu-politikekin zuzenean lotutako eremuen partaidetza indartzea, EAEko lan-merkatuko migrazio-fenomenora hurbilketa integral bat ziurtatzeko.

El Vicelehendakari agradece los acuerdos alcanzados y, en relación con este punto, señala que desde el Foro Vasco de Migración y Asilo se echa en falta su integración en la Mesa de Diálogo Social, planteándose asimismo la conveniencia de incorporar a este ámbito al viceconsejero Legarreta.

Se apunta igualmente la conveniencia de reforzar la participación de los ámbitos directamente vinculados a la formación profesional y a las políticas de empleo en los trabajos de la Mesa, a fin de asegurar una aproximación integral al fenómeno migratorio en el mercado de trabajo vasco.

Jarraian, gogorarazi da prestakuntza bidezko errotze-prozesuak eta beste lan- eta gizarte-ibilbide batzuk garrantzitsuak direla, aukera ematen baitute administrazio-egoera irregularrean dauden eta aurretik enplegua eskatu duten pertsonen prestakuntza jasotzeko eskubidea aitortzeko. Azpimarratu du errealitate hori abantaila bat izan daitekeela, pertsona horietako askok dagoeneko badutelako prestakuntza, eta, erregularizazioari lotutako ziurgabetasunak argituta, lan-merkatu sartzu litezkeelako prestakuntza duten langile gisa. Testuinguru honetan, nabarmendu da beharrezkoa dela erronka demografikoari erantzun bat ematea, lan-eskaintza zehatzekin lotutako lan-migrazioko kanalak sustatzen dituzten programen bidez.

A continuación, se recuerda la relevancia de los procesos de arraigo por formación y de otros itinerarios sociolaborales, en la medida en que permiten reconocer el derecho a la formación de personas con demanda previa de empleo que se encuentran en situación administrativa irregular. Se subraya que esta realidad puede constituir una ventaja, en la medida en que muchas de estas personas cuentan ya con formación y, una vez despejadas las incertidumbres asociadas a su regularización, podrían incorporarse al mercado de trabajo como personal cualificado. En este contexto, se destaca asimismo la necesidad de dar respuesta al reto demográfico mediante programas que impulsen canales de migración laboral segura vinculados a ofertas de trabajo concretas.

GAI-ZERRENDAKO BOSGARREN PUNTUA

Akordioa, Ekialde Ertaineko gerrarekin lotutako neurriei buruzkoa.

Lehendakariordeak adierazi du dagoeneko beste krisi-egoera batzuetan hartutako neurriak direla, eta haien helburua dela ez uztea inor atzean eta babes-erantzun bat eskaintzea hala langileei nola enpresei.

Eta, ez dagoenez jorratzeko beste gairik, bertaratuei gonbidapena luzatu zaie akordioak izenpetzeko ekitaldira joan daitezten (ondoko gelan egingo da), eta, hala, bilera amaitutzat eman da, 2026ko apirilaren 14ko 14:30ean, eta nik, idazkaria naizen aldetik, horren guztiaren fede eman dut, lehendakariaren oniritziarekin.

PUNTO QUINTO DEL ORDEN DEL DÍA: *Acuerdo sobre medidas en relación con la guerra en Oriente Medio.*

El Vicelehendakari manifiesta que se trata de medidas que ya se han adoptado en otras situaciones de crisis, con el objetivo de no dejar a nadie atrás y de ofrecer una respuesta de apoyo tanto a las personas trabajadoras como a las empresas.

Y no habiendo más asuntos que tratar se invita a los asistentes al acto de firma de los acuerdos que se realizara en un sala contigua y se levanta la sesión siendo las 14:30 horas del día 14 de abril de 2026, de todo lo cual como secretario doy fe, con el visto bueno del presidente.

PRESIDENTEA / PRESIDENTE
Mikel Torres Lorenzo

IDAZKARIA / SECRETARIO
Iñaki Calonge Crespo